

Proiektu eta jardueretan genero-ikuspegia txertatzea.

Erakunde publikoek eta pribatuek berariazko balorazio-irizpideak sartzen dituzte beren dirulaguntzetan, finantzatzen dituzten proiektuetan eta ekimenetan genero-eragin positiboa bermatzeko. Ikastaroak genero-ikuspegia proiektu eta programetan zeharka aplikatzeko oinarrizko tresnak eskainiko ditu.

#FEMINISMOA ETA AHALDUNTZEA



Oinarrizko Prestakuntza

MATRIKULA

Ikastaroaren data

MAIATZAK 19 EKAINAK 24RA

Matrikulazioaren data

HASIERA: APIRILAK 7

BUKAERA: MAIATZAK 11

25 orduko prestakuntza egiaztatua

Ikastaroaren hizkuntza EUSKARA

IRAKASLEA



Joana Etxano Gandariasbeitia.

Gizarte hezitzailea eta pedagogoa.



Lidia Ruíz Gómez.

Kazetaritza lizentziatua (EHU-UPV).



María Viadero Acha.

Gizarte Lanean diplomatua eta Soziologian lizentziatua (DU-UD).

Eman izena hemen

HELBURU OROKORRAK

- Generoaren kontzeptua eta generoak gizartean desberdinkeria sortzeko duen eragin estrukturala ezagutu eta ulertzea.
- Genero-ikuspegia erabiltzeak genero-inpaktu positiboa duten gizarte-proiektuak sortzeko aukera ematen duela ulertzea.
- Gizarte-proiektuetan genero-ikuspegia praktikan aplikatzeko tresnak eskuratzea.
- Erakunde batek egindako proiektu eta jardueren komunikazioa hobetzea, genero-ikuspegiarekin.
- Dirulaguntzen eskaeretan genero-ikuspegia txertatzen laguntzea.

UNITATE DIDAKTIKOAK

1. MODULUA

Desberdinkeria hurbiltzen. Generoa funtsezko kontzeptu gisa. Zer da genero-ikuspegia?

2. MODULUA

Gizarte-proiektuetan genero-ikuspegia txertatzeko orientabideak.

3. MODULUA

Gizarte-proiektuetako komunikazioaren mezua eta helburuak genero-ikuspegitik.

4. MODULUA

Genero-ikuspegia diagnostiko-fasean, plangintza- eta gauzatze-fasean eta ebaluazio-fasean.

